

Elixabete Perez Gaztelu

### Joxe Azurmendi saiogilea Deustuko Unibertsitateko saiakera-irakasle (1981-1982)

Eskerrak eman beharrean naiz Jakini egindako gonbit, niretzat, harri-garriagatik; izan ere, ez naiz Joxe Azurmendi zenaren ez haren lanen aditua. Gonbit aldi berean lasaigarriak bulkatu nau atzenean lerrook idaztera, besterik ez bada ere, EUTG zeritzan Donostiako campuseko Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologiako lizentzian irakasle izan nuelako eta –gero ohartu naiz– eskola haietan ikasitakoak nigan aztar-na sakona utzi duelako.

Azurmendirekiko lehen harreman zuzena 1981eko urriaren 6an hasi nuen, Euskal Filologiako 3. ikasturteko lehen eskola-egunean. Gizon irribarretsu hark telefono zenbakia (2773...) ere idatzi zigun arbelean... Ez dauzkat xehetasun horiek oroimen-kutxa neurologiko-sentimentalean, baina (auskalo zergatik gorde ditudan) lizentziaturako ikasgaietako kartoizko karpitetako batean topatu dut Joxe, ‘Euskal saiakera’ izeneko karpeta urdin *madalena usaindunean*. Lehen eguneko lehen orrialdean daude idatziak irakaslearen izen-abizenak, eguna eta telefono numeroa.

Saiakeraren definizioek (*Collier's Encyclopedia*, *Enciclopedia Americana*) betetzen dituzte lehen orrialdeak, eta ondoren datoz irakasleak begiz jotako hiru euskal saiogileren gainekoak: Txillardegi, Rikardo Arregi eta Koldo Mitxelena, nire eskuzko apunteen arabera, hurrenez hurren, gai filosofikoak, politikoak eta euskararen eta euskal literaturaren gainekoak aztertzeko. Hiru autoreok ezin saihestuzkoak Euskal Filologiako ikasleontzat, Azurmendiren ustez.

Arregiren *Herriaren lekuko*, Txillardegiren *Huntaz eta hartaz* –besteak beste, ‘Marilyn’ek bere burua hil du’ (Cira Crespok JAKINEN 260. zenbakian berpiztua)–. Eta Patxi Altunak apailatutako *Mitxelenaren idazlan hautatuak* antologiako ‘Euskal literaturaren etorkizuna’, ‘Asaba zaha-

rreren baratza' eta 'Pro domo'; 1950eko, 60ko eta 70eko hamarraldietako mugarriak. Gordea dudan nire lan bakarra aipatu berri ditudan hiru artikuluon gainekoa da. Kasualitatea?

Karpeta berean eskuetaratu zait *Argia* astekariaren ale bat: 1980ko azaroaren 2koa («60 pezta»). Azalean Patri Urkizu eta 'Patri Urkizu: euskal literatur [sic] heterodoxoa eskaintzen' izenburua. Gelditu egin behar izan dut, Patri lagun hil berriaren (2024-12-18) argazkiak atxikia. Aurkibidean, hauxe irakurri dut: «Joxe Azurmendi, duela urte batzuk *Zeruko Argia*-n hainbeste artikulu argitaratu izan zuen idazlea, berriro aurkituko duzue gure orrialdeetan *Luma zorrotz* sailean. [...] Hemen-dik aurrera gehiagotan ere izango da hemen, euskarari buruzko sail zabal bat eskainiz oraingoz». Bere burua «pesimista aktibotzat» daukan Azurmendiren artikuluak 'Egiaren orduan euskara ez da problema' du izenburua. Karpeta zaharren miaketak uztartuta eskaini dizkit Patri eta Joxe (2025-07-01) hil berri estimatuak. Kasualitatea ote?

1994ko urriaren 9an, Mitxelenaren heriotzaren urteurrena zela eta, *10 urte Koldo Mitxelena gabe* mahai-inguruko moderatzaile lana egitea egokitu zitzaidan, Errenterian. Patxi Altuna, Ibon Sarasola, Patri Urkizu eta Joxe Azurmendi ekarri genituen. Honelaxe aurkeztu nuen Joxe: «Aspaldixko EUTGn saiakerako irakasle izan nuen beharrik, eta eskola haietan ikasi nuen, hain zuzen, gerora hainbat eta hainbatetan erabiliko nuen *Mitxelenaren idazlan hautatuak* altxor baliosoaren berri». Urte bereko apirilaren 27an aurkeztua nuen tesia.

Patri Urkizuren zordun aitortua naiz, doktorego tesia Koldo Mitxelena herrikideari buruz egitera bultzatu ninduelako. Gutxiagotan esana dut, ordea, Azurmendi izan nuela Mitxelena saiogilearengana hurbiltzeko eta murgiltzeko bultzatzaile lehena. Eta nik bezalaxe, seguru aski, baita euskal filologogai haiek ere: Azurmendi saiogileak unibertsitateko aztergai bihurtu zigun euskal saiakera.

Berandu ez delakoan, Joxeri eskertu nahi diot begirada eramanaraztea euskal saiakerara, eta, bereziki, Mitxelenaren testu eta pentsamenduetara. Eta esker on hori ez da kasualitatea.